



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

547. zkia.

XIII. urtea

2005eko urriaren 21a

Jaime Arrese

25 urte bete dira tiroz hil zutela



GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK

- Fatxadak
- Teilatuak
- Aroztegia
- Iturgintza



Geotermia,
Eguzki energia
eta klimatizazioa



ERAKUSKETA

- Bainugelak
- Ateak / Lurrak



Tel.: 943 74 28 80 / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 Faxa: 943 74 45 87

E-posta: goki-erreformak@olapymes.com Olaso poligonoa 15 - 68. pabilioia ELGOIBAR



IMANOL LARRAÑAGA

Uxue, txikia nintzela jakin nuen mendian loretxo bat aurkitzen zela larre artean harrapatuta; eta aurrean, umetxo bat zegoela loretxoari begira arantzak kendu nahian. Udalekuetan, Itziarren semeak laguna ez duela salatzen entzuten nuen goizero. Eta amak krabelin gorria eskaini ziola horregatik.

Gaztetan, berriz, nire herriko neskatxa maiteari begira pasatzen nuen eguna, berak kasu handirik egin ez areen. Baina, egun batean, gehiago ez itxoitea erabaki nuen; kalera atera eta nire martxa berreskuratzea. Hala, lau teiltatu gainera igo eta, ilargia erdian nuela, goruntz begira jarri nintzen. Izar betaurrekodunak ikusi nituen. Izarren hautsa egun batean bizigai bilakatu zela ere konturatu nintzen; gu sortu ginen enbor beretik sortuko direla besteak ere.

Eta gaur, ilea zuritzen hasi bazait ere, oraindik ez dakit zenbat geran. Lau, bat, hiru, bost, zazpi? Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan. Rutinaren morroiak bihurtu garen sentazioa daukat sarri-sarri. Baina, badakit Urepeleko artzainaren azken hatsa izan zela bere bertsorik sakonena. Non dagoen galdezka segitu nahi dut, zein larretan galdu zen. Eta egunen batean topatzen badut, akaso, historiako euskal kanturik onena zein den erabakitzen lagunduko dit. Horrek batere garrantzirik baldin badauka behintzat.

ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

«Gaur ilea zuritzen
hasi bazait ere,
oraindik ez dakit
zenbat geran»

IMANOL

«Ezagutzen dugun
hauts bakarra
utopien gainean
pilatzen da»

UXUE

Ai, Imanol! Izan ere, kantak, gehienetan, bizitzera ausartu ez garen horri buruz aritzen dira. Edo bizitzen utzi ez digutenari buruz. Txikitari, *ilargiak erreka erdia edan du!* harekin lo hartzen nuen, eta goizero begiratzen nion Deba ibaiari ilargiaren egarria neurtzeko.

Hazi ahala, ordea, iruditzen zait gero eta jende gutxiagok sinesten duela abestietan. Kantatu, kantatzen dira. Baina sinistu?

Lau teiltatuetatik jaitsi eta teiltatue bakarra aurkitzeak dakartzan burukominekini itsutzen da asko, eta bizitza guztirako hipotekatu. Eta nor pozten da? Ziur zure aita ere ezetz. Gero eta jende gutxiagok ikusten ditu izar betaurrekodunak, bista ona behar baita horretarako, eta ikusteko gogoia. Ezagutzen dugun hauts bakarra utopien gainean pilatzen da eta, asteburutan, tabemetako komunetan. Lau? Bat? Hiru? Bost? Zazpi? Norbait poltsikoetan dituen txanponak zenbatzen ari da, eta ez beste ezer. Eta sarri-sarri oroitzen naiz Sarriekin: *jakin nahi nuke nork betetzen duen orain nik utzitako zelda*, idatzi zuen hark.

Eta, usain hartzen diot, banaka-banaka ari garela bertatik pasatzen. Baina ametsik gabe, helbururik gabe, arrazoirik gabe, defendatzeko kausarik gabe. Zer bihurtu gara: preso mekaniko?



GIZON BAT BERE IDEIENGATIK BORROKA EGITEKO PREST EZ BALDIN BADAGO,
IDEIA HORIEK EZ DUTE EZER ASKO BALIO EDO BERAK EZ DU EZER ASKO BALIO



Ezra Pound

Euskara

Hilman irakasleak, Naguncia (Alemania) Unibertsitateko errektorea, 1963ko Frisones-eko Kongresuan ondorengo adierazi zuen: "Europar inork ez luke probetxurik aterako euskaldunek beren hizkuntza hitz egiteari utziko baliote. Hori gertatuko balitz Europa osoa pobreago geldituko litzateke. Antzinakoa, jatorri oso zaharra daukan hizkuntza bat galduko litzateke, sekretu askoren klabea eman ahal digun hizkuntza. Beraz, filologia alorraz gain, gizaki kultuarentzako ere interesgarria da. Tamalez, egunen batean euskal hizkuntza hilko balitz, ez nuke berriro Euskal Herria ikusi nahi, niretzako xarma berezia duen Euskal Herria. Zapi handi batek estaliko litzuzke mendi urdinuak eta Pirinioetako baso berdeak, Natura guztia, Lurra eta Zerua lutoz jantziko litzateke, gizakia ez litzatekeelako izango bertako edertasuna, beneragarria eta sakratua dena deskubritu eta babesteko gai".

Monsieur Lafevre, Paris-La Sorbona Unibertsitateko Katedratikoak zera zioen: "Magiarrak, turkoak, somiak... beren herrien garaipenaz sartu dira Europar, baina Euskal Herria eta bere hizkuntza Pirinioan Historia baino lehenagoak dira. Antropologoen, etnologoen ezta

filologoek ere ezin izan dute oraindik datu zehatzik eman. Duela hiru mila urte Europako hizkuntza guztiak zapuztuta geratu ziren eraso indo-europeoak zirela-eta. Euskara izan zen iraun zuen bakarra, eta oraindik irauten duena. Harritzeko fenomenoak, Europar eta ziurrenik mundu guztian bakarra".

Alexander Marr errusiar filologoak esan zuenez, urrezko dorre bat eraiki beharko litzateke Euskal Herria eta bere hizkuntza gordetzeko, honelako bitxi preziatua sekula ez desagertzeko.

Diktadura frankista garaian, euskaldunen kontrako giro arraro batean, "Agur" soil bat esateagatik atentzioa eman eta kristautasunez hitz egiteko eskatzen zuten garaian, irakasle gehienek euskararen aurkako sentimenduak zituztenean eta hizkuntza hori hitz egiteagatik zigortu egiten gintuztenean...(gehiago ere esan daiteke, baina luze joango litzateke eta ez daukagu lekurik), Ikastolak sortzearen ideia piztu zen. Bikain! Dirua zen arazo duro eskatzen genizkion geure aportazioa egiteko. Honela sortu ziren lehenengo ikastolak. Mirari euskaldun bat izan zen.

Etorkizuneko belaunaldiek euskaldunek euskara kontserbatzeko

egin zuten lanaz hitz egingo dute, dudarik gabe! Baina batez ere, 40 urteko diktadura frankistak ezin izan zuela euskaldun harrotasuna suntsitu gogoratuko dute.

JULIAN MUJICA EHNA R8822593T

Katua

Gaur goizean garrasi batzuek esnatu naute. Balkoira atera naiz, eta zarata etxe ondoko parketik zetorrela iruditu zait. Eten ez zenez, behera jaistea erabaki dut. Parkeko izkina batean kartoizko kaxa bat zegoen, eta barruan katakume bat. Urik gabe, eta ogi zati batzuekin. Kaxak goialdean izen bat zeukan idatzita, "Susana". Ez dakit Susana nor izango den. Beharbada ume bat. Beharbada umeak katua etxera eraman du eta gurasoek errazena egitea erabaki dute. Kanean botata uztea. Animaliak ez dira jostailuak. Ezin dira abandonatu.

Inori adoptatzea interesatzen bazaio, jar dadila nirekin harremanetan.

ANE OVEJERO ASTIGARRAGA
TELEFONO ZENBAKIA: 943743699

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe KE, Urruzuno, Unai Willena, Aiaitz Vives **ESABEA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburitik **INPRIMATEGIA** Gerfu **TIRADA** 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK



- Herritar batek esan digunez, **Sallobenteko aparkalekuan zabor ontziak falta dira**. "Sallobenten dagoen aparkalekuan lehen baziren zabor ontziak, eta baita Ermubeko iturriaren ondoan ere. Zergatik ez dituzte berriz ere zabor ontziak jartzen? Ume, gazte eta heldu asko ibiltzen da egunero ingurune honetan, eta zakarrak botatzeko aukera egon beharko litzateke. Plazetan, eskolen inguruetan, jolas guneetan arreta bereziz jarri behar dira zakar ontziak, ingurumena errespetatzen ikas dezagun".



TXALOK

- Herritar batek Udala txalotu nahi du, **Erretxinditik Mintxetarako bidea konpontzen hasi direlako**: "Bazen garaia! Azkenean hasi dira Erretxinditik Mintxetarako bidea konpontzen. Jende asko ibiltzen da bide honetan, eta oso hestua zegoen. Bi auto gurutzatzeko gaizki zegoen, eta oinezkoentzako ere oso arriskutsua zen. Gainera, Basarteko etxeetatik beste bide bat egin dute Mintxetara joateko, eta ingurune hau oso txukun gelditzen ari da".



GALDERA

- Udalak ba al du herriko gazteen lokalak diruz laguntzeko **asmorik**? Gazte koadrila batek luzatu digu galdera hau, eta hauxe izan da Maialen Aranguren Udaleko Gazte Teknikariak eman digun erantzuna: "Oraingoz ez. Koadrila horiekin harremanetan jarriko naiz, baina gure asmoa denentzako izango den lokala egitea da. Koadrilen arteko lokal horiek modan daude gaur egun, eta herri guztietan ematen da joera hau. Gaztelekuak eta gaztetxeak koadrila guztiak biltzeko eta lagun berriak egiteko aukera eskainiko du".



Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Clinica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44



URRUZUNOREN Luma

Esnatzeko garaia

Ilun zegoen eta hotzak eragindako deserosotasunak esnatu zuen. Bere ohean zegoen uste uztelean, existitzen ez ziren manta epelen bila aritu zen begiak oraindik itxirik zituela. Baina azkar zabaldu zituen, eskuekin haztatutako ingurua zeharo arrotza zela somatu zuenean. Non zegoen? Oholtzarren bitarteko zirrikuetatik argi izpi xume batzuk iristen zitzaizkion; erleek aitonen baserrian egin ohi zuten ezti goxoaren kolore berdineko izpiak ziren. "Eguzkia udazkenez jantzi zaigu" pentsatu zuen. "Udazkena". Baina pentsamendu hark izutu egin zuen. "Zenbat denbora daramat lo egurrezko kaxa izugarri honen barruan?" Lo hartu baino lehenagoko oroitzapenak berreskuratzen ahalegindu zen, baina oso zaila egiten zitzaion denboran barrena atzera begira lasterka egitea, eskumuturreko ordulariak eta poltsikoko egutegiak aurrera egiten zutela ahaztea ezinezkoa egiten zitzaiola jakinik. Ihes egin behar zuen. Desagertzeaz zituen indarrak pilatu eta gorputz osoa oholtzar haietako baten aurka kolpatu zuen. Ezustean, egurrezko kaxa izugarri hartako atea zabaldu zen. Eta bapatean, egurrezko kaiola hartatik joateak beldurra eman zion.

Eguzkiñe Aranberri



BAI ESAN?

M^a ISABEL
AIZPURUA


PARROKIKO MISIO TALDEKO KIDEA

Datorren igandean, urriaren 23an, Domund Eguna izango da. Hori dela-eta, Parrokiako Misio Taldeko M^a Isabel Aizpuruarekin hitz egin dugu, egun honi buruzko xehetasunak ezagutzeko.

- **Zer ospatzen da Domund Egunean?** Domund Eguna Misioen Mundu Mailako Eguna da. Egun honetan kristau guztiak misiolariak garelako gogorarazten da, eta kristau guztiok fedea zabaltzeko eginkizuna daukagula adierazten da. Domund Egunak lelo edo lema bat edukitzen du urtero. Aurtengoa, "ogi zaititua munduarentzat" da. Egun honetan kristauak beren diru aportazioa egiten dute elizan, kolekta bat egiten da.
- **Zeini ematen zaio Domund Egunean biltzen den dirua?** Elizan jasotzen den dirua Gipuzkoako Eliz Barrutiko Misio Taldeari ematen diogu, eta bertan erabakitzen dute diru horrekin zer egin. Beharren arabera banatzen dute dirua.
- **Egun honetaz aparte, non egin daitezke honelako eskaintzak?** Domund Egunaz gain, urte osoan egin daitezke eskaintzak. Misio Taldeko edozein kidearekin edo apaizarekin harremanetan jarriz lagundu daitezke.

komikia

Hil da gero... Ravelen 'Bolero'



Kokoe 03A

[AKORDATZEN NAIZ]



FELISA BERGARETXE

1915an jaioa

«Fubola, telebisua eta erlijua»

Fubolak ez zakan gaur egun daukan indarra. Ni ez naiz sekula oso fubolzalía izan. Juaten zan jendia Bilbora, San Mamesera Atletixa ikustera, baiña nik ez naban segitzen. Danetariko jendia zaguan. Atletikuak asko, baiña Realzaliak ere bazagozen. Gu etxian Atletikzaliak izan gera. Nere senarra oso zalía zan. Neri, baiña, pelotía gehixago gustatzen jatan.

Gure gazte-denporan telebisua zer zan ere ez genkixan. Oso etxe gitxittan zaguan telebisua orduan. Guk lehenengoz tabernan

eduki gendun. Etxera, ezkondu ostian ekarri gendun telebisua. Ez pentsau ilusio haundixegixa egin zidanik ere, ez naban gehixegi apreziatzen. Radixua entzuten naban gehixago, albistegixak batez ere. Atzerriko albistiak ere ematen zittuen, eta harek entzuten nittuan gustora.

Erljiuaz zer esango dizut ba! Guk lehen ez gendun mezarik galtzen. Astero juaten giñan mezetara. Ointxe hasi naiz ni kale egitten. Gustatzen ez jatazen gauza asko ikusten dot munduan, eta askotan mezetara juatiari laga egitten diot. Rebeldetuta nabil azkenaldixan.



[GURE BERBAK]

Esapide adierazgarriak (4)

Hona gaurkuan ere esapide indargarri gehixago, aurreko astekueri jarraipena emanez.

- *Demaseko jipoia eman jaek lehenguan semiari, pelotan.*
- *Kerixak harrapatzen ari zala basamitarra etorri dok; harek atara jok hanka jokua!*
- *-Gaur bota jaittuagu berrogei bat uso! - Bai, zera! Beruana kendu egixok!*
- *Eurixa bota ahala ari dok!*
- *Eurixa goixan-behian ari dok!*
- *Bildurrak akabatzen egoten dittuk gure umiak marrazki bizidun horrerri begira.*
- *Gosiak amorratzen nagok bai, eta banajiek ogitartekoren bat jatera.*
- *Holako gauzak egitten dittuana ez dago burutik (ganbaratik) sano!*
- *Eutsi goixari, motell, mundua ez dok hemen amaitzen eta!*
- *Ganau ona (edarra) dok ba haura, hari adarra jotzen ibiltzeko!*
- *Egun argittuta allegau nitzan etxera: gozua zaguan gure aitta!*
- *Gabonzar perixako egunian, ez dok giro izaten Elgoibarko kalietan!*
- *Inpemuko diabrva baiño gaiztuagua dok ume hori!*
- *Inpernuak ere etxok hartuko gizon hori!*

Jesus Mari Makazaga



JOSE *pinturak*
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)

PSIKOLOGIA

(HARREMAN ARAZOAK:
bikotearekin, familiarekin edo hideoekin)

(LIMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK

(ANTSJETATEA

(DEPRESIOA

(ESTRESA

(ELIKADURA ARAZOAK

(AUTOESTIMA

HARRERAK LEHENDU
BETETZU NAIZEN-IL

milan mailka: 676 61 70 55

JAIME ARRESEREN HILKETA

25 URTE DIRA TIROZ HIL ZUTELA

Jaime Arrese elgoibartarra hil zutela 25 urte beteko dira datorren igandean, urriaren 23an. 44 urte zituen, 10 anai-arrebetatik gazteena zen. Ezkondua zegoen eta 14 eta 17 urteko bi seme zituen. 1980. urtea zen. Egunero bezala, Jaime Arrese Iriondo tabernara joan zen bazkalostean kafea hartzera, eta bertan lasai-lasai zegoela, lanera joan aurretik tirokatu zuten. Egurdiko 14:30ak inguruan, gizona bat tabernan sartu eta atzetik buruan tiro egin zion. Jaime lurrera erori zen berehala, eta bat-batean hil zen. Erahilketa Komando Autonomoek bere gain hartu zuten. Sententziak azpimarratu zuenez atentatuaren egilea, berriz, Juan Carlos Arruti Azpitarte izan zen. Egun iluna dudarik gabe Elgoibarren historian, eta elgoibartarren bihotzetan. Hilketa honen 25. urteurrenean egun hura gogoratu nahi izan dugu. Jaime Arreseren bizitzaren laburpen bat bildu dugu ondorengo orrietan, eta bere hilketaren ostean egunkari desberdinetan publikatutako datu interesgarrienak jaso ditugu. Honetaz gain, Jaime Arrese ondo baino hobeto ezagutu zuen Txomin Mujikarekin egon gara. Belaunaldi berriek ezagutu behar duten historia, gaurkoa.

JAIME ARRESE, ELGOIBARKO ALKATEA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Askok ez duzue Jaime Arrese nor zen jakingo, baina beste askok gogoan izango duzue oraindik. Gizon oso ezaguna zen herrian. 1974 eta 1977 bitartean Elgoibarko alkate izan zen, eta 1971. urtetik zinegotzi. 1977ko maiatzaren 13an alkate kargutik dimitiu zuten. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautatua izan zen, eta esaten zen, Diputatuen Kongresuan Marcelino Orejaren ondorengoa izango zela. 1975. urtean Ikurriña legezatu zen, eta Arressek jarri zuten udaletxeko balkoian lehenengo aldiz

1976ko maiatzaren 26an, alkate zela, mozio berezi bat aurkeztu zuten Elgoibarko Udalean. Espainiako presidenteari zuzendutakoa, eta bertan

euskal probintzietan foro erregimena itzultzeko eskatzen zen. Mozioa aho batez onartu zen eta Madrilera egin zen eskaera, Gobernuako Presidenteari eta Erregeari, hain zuzen ere.

Jaime Arreseren hilketa kondenatuz mozioa ateratu zuten Elgoibarko Udalak. EAJ, PSOE, PCE, EE eta ESElko zinegotziek aldeko botoa eman zuten, eta Herri Batasuna abstenitu egin zen.

Politika munduaz gain, Jaime Arresek lan asko egin zuten. Arriola y Cía. enpresako langilea zen, eta bertako administrazioaz arduratzen zen. Kirolzalea eta kirolaria zen. Gaztetan atezain moduan jokatu zuten C.D. Elgoibar eta Ondarroako Aurrera taldeetan. Bestalde, Elgoibarko Institutoko gurasoen elkarterako lehendakaria izan zen, eta alkate izan zen garaian etengabe jardun zen herriak Batxilergo Instituto bat izan zuten arte. Musikazale amorratua, herriko musika banda, txaranga eta dultzaineroen alde lan handia egin zuten. Ezbairik gabe, ez zen besoak gurutzatuta gelditzeko gizona.



Aizamak Batzar Nagusietarako ongietorria egin zion.



Elgoibarko Institutuko inaugurazioan ateratako argazkia.

Hilketaren hurrengo eguneko kronikak egunkari desberdinetan:

• **Deia:** "Jaime Arrese tirokatuta hilda jendez gainezka zegoen taberna batean". Deiak bi puntu nagusi azpimarratu zituen. Batetik, Marcelino Orejaren ordezkoa izan zitekeela Espainiako Parlamentuan eta bestetik, herriko komentario orokorra: "herriaren alde lan asko eginiko gizona zen". "Eguerdiko 14:30ean bi tipo sartu ziren lirondo tabemara. Jaimerekin zegoen laguna bultzatu eta tiroketa hasi zen. Hiltzaileek korrika alde egin zuten eta Seat 127 auto batean zain zeukaten hirugarren lagun batekin ihes egin zuten". "18 eta 20 urte bitarteko bi gazte izan ziren hiltzaileak. Zazpi tiro egin zituen hiltzaileak, horietako lau Jaimeren gorputzera joan ziren, bi burura eta beste bi torax zonaldera. Heriotza bat-batekoa izan zen"... "Jaime ez zuten sekula mehatxatu..."



• **El Correo Español:** "Elgoibar: Jaime Arrese erahila, herriko alkate ohia, UCDko agintaria eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kidea". Egunkari honetan Arriola y Cia. Enpresako kideek ateratako komunikatua publikatu zen. Komunikatu honetan hilketa kondenatzeaz gain, Jaime ondo ezagutzen zuten lagunuen hitzak datoz, Jaimeren lankidetasuna goraiatuz. Honetaz gain, Jaimeren anai baten hitzak jaso zituen El Correek: "Ezin nuen sinistu. Jaime hil dela esan didatenean bihotzekoak eman diola pentsatu dut, ez nuen honelakorik espero, sekula ez zuten mehatxatu".

• **El Diario Vasco:** "Luto eguna Elgoibarren"... 1980. urteko urriaren 24a luto eguna izan zen gure herrian. Arriola y Cia. enpresako lankideek ere Jaimeren hilketa kondenatu zuten.

• **El Diario Vasco:** "EEk Arreseren kontrako atentatua kondenatu du". Euskadiko Ezkerra alderdiak ere atentatua kondenatu zuen eta Elgoibarko Udalak (HB kenduta) manifestazio isila konbokatuz. Manifestazio oso jendetsua izan zen.

• **El Diario Vasco:** "Elgoibarko alkate ohia, Amorebietako zinegotzi ohia eta

Telefonicako delegatua erahilak". Egun berean hiru hilketa egon ziren, eta horietako bi UCD alderdiarekin zerikusia zutenak izan ziren.



• **Egin:** "Gipuzkoako atentatuen kontrako erreakzioak". Egin egunkariak hiru hilketen aurrean egon ziren erreakzioak jaso zituen. Elgoibarko Udalak HBren abstentzioarekin atentatua kondenatzeko ateratako mozioa azpimarratu zuen Eginek.

• **El Correo Español:** "Elgoibar: Herri osoa izan zen Jaime Arreseren hiletan". Elizkizun jendetsua izan zela aipatzen du El Correek. Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusiak Jaimeren hilketa kondenatu zutela esaten da bertan. Honekin batera, luto egunean herriko hainbat enpresa eta komertzioak geldiduna egin zutela argitaratu zuen El Correek.

TXOMIN MUJIKA Laguna

«Oraindik ez dut ulertzen zergatik hil zuten»


25 urte pasatu diren arren, Jaime hil zuten eguna atzo izan balitz bezala gogoratzen du Txominek: "Lanetik atera eta berarekin gurutzatu nintzen kalean. Etxera joan eta amak deitu zidan Jaime hil zutela esanez. Ezin nuen sinistu. Oraindik ez dut ulertzen zergatik hil zuten, Jaimek Elgoibarko herriari lagundu besterik ez zion egin. Gizon jatorra zen, laguna, eta elgoibartar peto-petoa". Txominek kontatu digunez, hilketa honek izugarizko oihartzuna izan zuen herrian: "Jende mordoak joan zen hiletara, bandarekin jo genuen eta oso emozionantea izan zen. Elizkizunaren ostean manifestazioa egin zen, gogoratzen dudana manifestazio jendetsuena izan zen".

Txomin Mujika eta Jaime Arrese musika munduak lotu zituen. Jaime Arrese izan zen Elgoibarko Musika Bandari uniformeak

eman zizkiona: "Hainbeste denboran bandarako uniformeak eskatzen ibili ostean Jaimek lortu zizkigun. Gainera, garai hartan herri desberdinetako musika bandak kendu egin zituzten eta Jaimeri esker Elgoibarkoa mantendu egin genuen".

Txomin Mujikak gogoan dauka gaur egun erabiltzen dituzten dultzainak nola lortu zituzten: "Jaimek galdetu zigun behin ea nolako dultzainak geneuzkan, eta oso eskasak zirela esan genion. Harrituta gelditu zen, eta ea zergatik ez genituen hobeak erosten galdetu zigun. Guk ez geneukan dirurik, eta berarengana joateko esan zigun. Iruñako enpresa bati eskatu genion aurrekontuak eta berak erosi zizkigun. Gaur egun oraindik dultzaina horiek erabiltzen ditugu".

[PROTAGONISTA]



Fernando Bert

Fernando Bert euskal preso politiko elgoibartarra joan zen urriaren 4an eta 5ean epaitu zuten Pariseko Palace de Justice-en. Berarekin batera, Santurtziko Agustin Figal euskal preso politikoa epaitu zuten. Lehenengo egunean epaileak eginiko galderak ez zituzten erantzun, egoera politikoari buruz bakarrik hitz egingo zutela esanez. Figalek 20 minutuz berba egin zuen, esan digutenez, "sekulako egurra" emanaz. Fiskalak 5 urteko kartzela zigorra eskatu du bi presoentzat. Azken sententzia datorren azaroaren 17an aterako da.

[NOTIZIA]

688.000 euro erabiliko ditu Udalak Sigmako aparkalekua egiteko

Elgoibarko Udalak ibilgailu arinentzako aparkalekua egingo du Sigmán. Proiektua lehiaketa bidez aukeratu da, eta Aikia S.L. enpresa izango da obrak aurrera eramateko arduraduna.

688.000 euro inguru

Aikia S.L. enpresak aurkeztutako proiektuak 687.920,50 euroko aurrekontua dauka. Bi solairutako aparkaleku bat eraikitzea aurreikusten da. Guztira, 2.513m² izango ditu aparkaleku honek. Beheko solairuan 52 aparkaleku egingo dituzte, eta bigarren solairuan 44. Obra hauek hiru hilabeteko epean egingo dira. Aparkalekuak eguneroko erabili ahal izango dira, baina ostegun goizetan, beheko solairuan merkadilloa



jartzea aurreikusten du Udalak. Einbiou Herri Plataformak obra hauek geldiarazteko eskatu duen arren, Udalak aurrera jarraitzen du. Einbioukoen ustez, Sigmán ez dago aparkaleku beharrik eta diru hori gastatzeko behar handiagoak daude Elgoibarren.

[ZENBAKIA]

29

Elgoibarko Ikastetxeetan 29 ikasle atzeritar daude DBHra arteko mailetan. Elgoibar Ikastolan 2, Pilar Ikastetxean 16 eta Herri Eskola eta BH Institutoan 11. Ikasleen %2,47a, beraz, atzeritarrek dira. Euskal Herriko ikasle atzeritarren batez bestekoa %3,2an dago, beraz, Elgoibar batez besteko horren azpitik dago.

asteko [ARGAZKIA]



Jende gehienak ez duela Operación Triunfo bezalako programarik ikusten esango du, baina begira zer topatu genuen gure herriko horma batean itsatsita! Joan zen astean bukatu zen Operación Triunfo lehiaketa, eta dirudienaz, gure herrian Victorren jarraitzaile asko dago. Bere aldeko botoa eskatzen zuten finalean, baina badirudi elgoibartarren botoak ez zirela nahikoak izan. Victor hirugarren postuan gelditu zen, Soraya eta Sergio txapelkunaren atzetik.

Elgoibarko Goitek enpresak 15 urte bete ditu



Elgoibarko Goitek enpresak 15 urte bete zituen irailaren 28an. Goitek enpresa 1990. urtean sortu zen Fatronik eta Tekniker enpresen bultzadaz. Goitek enpresak Ingeniaritza Informatikoaren garapenean egiten du lan. OLANET izena dauka Goitek-ek erabiltzen duen Software-ak eta honek kudeatzen du enpresaren produkzio guztia. Joan zen irailaren 27tik 30era bitartean Industria eta Teknologia alorreko bilgunea izan zen Bilboko Erakustazokan eta bertan software eta hardware produktuen azken berrikuntzak aurkeztu zituen Goitek enpresak.

45 langile

Goitek enpresaren egoitza nagusia Sigmako industrigunean dago, baina honetaz gain, Asturias, Bartzelona eta Madrilen ere delegazio desberdinak dituzte.

Bestalde, beren produktua Espainia osora zabaltzeko banatzaileak dituzte. Sektore desberdinetan banatuta, 450 bezero baino gehiago dituzte.

Goitek enpresa informatika munduan kualifikazio handia daukaten 45 langilek osatzen dute. Enpresa honen helburua teknologia berrien etengabeko berrikuntza da.

IMHk infromatika software eskaintza gehituko du



Elgoibarko IMHk eta CATIA diseinu software-aren banatzaile den ABGAM Segula Technologies enpresa bizkaitarrak hitzarmena sinatu dute. Honi esker, egungo diseinu software puntakoenak eskainiko ditu IMHk. Honela, PLM teknologien proiektu industrialak garatzeko integrazioa osatu du.

CATIA softwarearen formazioa ABGAMek ziurtatu eta bematuko du eta IMHk prestakuntzarako diru laguntzen kudeaketa egingo du. CATIARI buruzko lehen ikastaroa datorren azaroaren 9an hasiko da.

[MOTZ-MOTZIAN]

Kilo bateko onddoa

Begira nolako onddoa aurkitu zuten Enkar, Jesus eta Asierrek! 30 zentimetroko diametroa zeukan txapelak eta kilo bat pisatzen zuen. Onddo zuria da, Boletus Endulis. Madarixatik gora aurkitu zuten, Otarre inguruan. Esan digutenez, oso arraroa da honelako perretxikoa aurkitzea, eta baserriarrak ere harituta geratu ziren. Bi saiotan jan zuten perretxikoa eta oso ona zegoela esan digute.



Eskualdeko parkinson elkarteak zerbitzua zabaldu du

Debabarrenako Parkinson Elkarteak (Deparkel) gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak zabaldu ditu gaixoen atentzioan lan egingo duen neuropsikologa baten kontratazioarekin. Deparkelek Ipuruako Polikiroldegian du bere egoitza nagusia eta mugikortasunean eragiten duen gaixo neurologiko hau duten kaltetuei zuzenduriko fisioterapia eta masaia zerbitzuak eskaintzen ditu. Debabarrenan 200 bat Parkinson gaixo daude. Informazio gehiago nahi izanez gero, 630 21 06 86 telefonora deitu daiteke.

1942ko kintoak

1942. urtean jaiotako elgoibartarrek azaroaren 12an egingo dute urteroko anaiarteko bazkaria Sigma jatetxean. Interesatuek 40 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 0071035389 kontu zenbakian. Azken eguna azaroak 9. Ordainketak goizeko 10:30ak aurretik egin behar dira.

Inkesta

Turkian agertu den hegaztien gripea Europa osora zabaltzeko arriskua dagoela esan dute zientifikoek.

Kezkatzen al zaitu hegaztien gripeak?

FELIPE LIEBANA
Haragi banatzailea
40 urte



“Momentuz ez, lasai joaten naiz oilaskoa erostera eta ez dut txertorik erosteko asmorik. Oraindik urruti dabil gaixotasuna eta hurbiltzen ez den bitartean lasai nago.”

MONTSE CERREJON
Dendaria
39 urte



“Kezkatzen nau, baina ez gehiegi, hemengo produktuen kontrolaz fidatzen naiz. Umeak txertatu egin behar direla esan dute, eta halaxe egingo dut badaezpada.”

MARIA OROZKO
Irakaslea
27 urte



“Gripeak berak baino gehiago politikariek esaten dutenak kezkatzen nau. Zer kontatzen duten, zer ez eta horren aurka zer egiten den. Beti gaude berdin.”

IVAN MORALES
Ikaslea
18 urte



“Ez, bat ere ez. Politikariek edozein gai erabiltzen dute beren aldeko kanpaina egiteko. Momentuz urruti dago eta heltzen bada ere ez da hain-besterako izango.”

[BAI ala EZ?]

Ondo egiten al duzu lo?

BAI %92

“Bai, baina argi ta garbi daukat ondo lo egiteko neke fisikoa baino hobearik ez dagoela, eta bestela galdetu etxetik kanpo ere lan egiten duen eta umeak dituen emakume bati.”

EZ %8

“Nik ez. Gero eta okerrago gainera. Yoga egiteak laguntzen duela entzun izan dut eta probatzekotan nabil. Ez dago eguna nekatuta hastera baino gauza okerragorik.”


Datorren asterako... **Udalak 700.000 euro inguru erabiliko ditu Sigman aparkalekuak egiteko. Erabiliko al duzu Sigmako aparkalekua?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

Dekorazio

gehigarri berezia

gehigarria

Etxean epel, eroso eta gustura

Ispilutxo, ispilutxo zein da Elgoibarko etxerik politena?

Galdera honen erantzuna zure etxea izan daiteke!

Etxe berria erosi baduzu edo etxe zaharra berritzeko asmotan baldin bazabiltza, hemen aurkituko duzu beharrezko guztia. Etxebizitza goitik behera dekoratzeko hainbat aholku eskainiko dizkizugu gehigarri berezi honetan.

Koloreak, azken berrikuntzak, argiztapena...

Honekin batera, zure etxea zure gustura apaintzeko nora jo daitekeen ere azalduko dizuegu. Nahi al duzu gurekin bameratu?



etxe **A**painduz

DEKORAZIO GEHIGARRIA

Sukaldearen berritzea 15 pausotan

Sukaldearen berrikuntza lana arrakastatsua izan dadin, lanak planifikatzeko funtzeskoak diren 15 pausoak:

1. Banaketa erabaki

Espazioaren itxurak eta erabilgarri dauzkagun m²-ek baldintzatuko gaituzte. Nola banatu altzariak? U edo L forman, erdian lanerako mahaitxo bat lagaz... aukerak anitzak dira.

2. Guneetan banatu

Erosotasunez lan egiteko, gune ezberdinen arteko distantzia 120 cm baino gutxiagokoa izatea komeni da. Hiruki irudikari bat osatuz: ertz batean sua, beste ertzean gauzak gordetzeko gunea (hozkaile eta jakitokia) eta 3. ertzean uraren gunea.

3. Neurriak kontutan hartu

Erosotasunaren bilaketan neurriak kontutan hartu. Gainerako sukalde eta zorua arteko distantzia 85-90 cm-koa izan behar da. Goiko amairuek ez dute zorutik 150 cm baino gehiagora egon behar. Amairu gune ezberdinen artean 100 cm-tik gora utzi ateak eta palak irekitzeko.



4. Instalakuntzak berrikusi

Ur, gas eta elektrizitate instalakuntzak berrikusteko aukera paregabea da, 10 edo 12 urte baino gehiago badituzte. Beharko ditugun entxufeak aurreikusi. Lurreko korrante-hargune bat; labe, hozkaile, labesu plaka, mikrouhin-labe eta ontzi-garbigailuarentzat eta beste bost entxufe elektrotresna txikiak.

5. Argi iturriak erabaki

Argi orokor bat eta puntu konkretuak argiztatzeko argi iturri txikiak jarzea da zuzenena. Argiak epeltasun sen-

tsazioa eman behar du. Hortaz, fluorescenteak sahiestu.

6. Gainerako sukalde argiztatu

Elikagaiekin lanean ari garenean itzalik sortu ez dadin gainerako sukalde uniformeke argiztatu.

7. Kalitatezko altzariak aukeratu

Beroa eta hezetasuna ondo jasango dituzten altzariak izan behar dira. Egurrezko altzariak aukeratu gero, barniz geruza ona dutela ziurtatu. Altzari laminatuak merkeenak dira eta lakatuak, beriz, ederrak baina delikatuak.

Pitxiak.com dekorazioa

- Ontziteriak • Kristala • Mahai tresneria • Mahai zapiak • Kafe jokuak • Zumitza • Lora sikua
- Koadroak • Etxerako osagarriak • Altzariak • Sofak • Ezkontza, jaurnartze eta batai opariak

Pol. Axiri, San Juan Auzoa
Tel.: 943 85 06 44
AZKOITIA

Foru Ibilbidea, 7
Tel.: 943 81 45 87
AZPEITIA

8. Armairu nahikoa jarri

Sukaldeko ontziteria eta mahai tresneria gordetzeko lekua jarri. Despentsa eta garbiketa produktuak gordetzeko armairu bat laga. Baxera eta beirateria goiko apaletan gorde.

9. Zoru sofritua bilatu

Zoruairen ezaugarria gogortasuna izan behar da. Hau dela-eta, Gres-a da zorurako materiale izarra. Parket sintetikoak ere oso erabiliak dira. Egurra da materialik epelena, baina ondo tratatua egotea komeni da, iraungo badu. Lurrezko, edo marmolezko zoruek poro gehiago dute eta errazago kaltetzen dira.

10. Materiale praktikoak aukeratu

Mantenu erraza duten materialeak aukeratu. Erraz garbitzen diren materialeek denbora luzeagoan dirudite berriak.

11. Paretak babestu

Sukaldeko paretak etengabe kaltetzen dira: zipristinak, baporea, etab. Estaldura iraunkor eta garbitzeko errazak aukeratu. Ohikoenak: granittoa, marmola, egurra, altzairua... edota sintetikoak.



12. Sukalde gaineko egokia

Lan gogorrenak jasan behar dituzenez, kalitatezkoa aukeratu. Marmola eta granittoa erabilienak dira, baina sintetikoek gero eta jarraitzaile gehiago dituzte. Altzairua ere gero eta ohikoagoa da, xafiak merkeenak dira eta egurrak hezetasunaren aurkako tratamendua behar du.

13. Lanerako espazioa laga

Harraskaren ondoan 40-60 cm-ko tartea utzi libre. Labearen ondoan ere beste horrenbeste, ontziak arazorik gabe lagatzeko. Plakaren albo

banatan ere 40 cm-ko tartea laga.

14. Behar bezala jantzi

Elektrotresnen zerrenda bat egin. Sukaldearen tamaina kontutan hartu, baina ez gehiegi arduratu, sukalde oso txikietarako diseinatutako elektrotresnak ere badaude merkatuan.

15. Elektrotresnak banatu

Elektrotresna bakoitza bere lekuan jarri. Ontzi garbigailua, harraska eta hozkailua elkarrengandik gertu. Arropa-garbigailua eta lehorgailua hobe batera eta labea eta mikrouhin-labea zutabe berean.

Triendo Triendo Triendo Triendo

Santa Ana 4 eta 6
Tel.: 943 74 12 34

Nola argiztatzen da gazte logela bat

Etxeko gazteek ordu gehien pasa beharko duten txokoa dela kontutan izanik, ordenagailu aurrean edo liburu artean bista gal ez dezaten egin kasu aholkuei:

Argi orokorra

Epeltasun eta erosotasun sententzia sortu behar du argi iturri nagusiak. Zapaitik eskegitzen diren lanparekin (100 w indarrekoak, gutxienez) lortu daiteke efektu hau.

Giroa

Argiztapen orokorra indartzeko pantailatxo batez estalitako lanpara txikiak jarri daitezke logelako txoko batean edota argipuntuak (pintzalanparak) sakabanatu logelan zehar, esaterako, armairu edo apalategian.

Lanerako mahaia

Bista nekarazi eta itsutuko ez duen argi zuzen bat beharrezkoa



da. Onena: beso artikulatudun flexoa. Bonbilla halogenoa eta argia gidatzeko aukera badu hobe. Ordenagailuaren inguruan suabeagoa izan behar du argiztapenak, pantailaren erreflexuak eragozteko.

Ohean irakurtzeko

Guk nahi dugun lekura argia gidatzeko aukera eskaintzen digun lanpara jarri. Albo batetik eta atzetik eman behar digu argia. Bonbillaren potentzia 60 w.

URZELAI

Elektrizitatea
Argiztapena



Santa Ana, 12-14 • Tel.: 943 74 13 76 / 608 77 40 32



Pentsatzen dugun moduan bizitzeko.

Zure etxebizitzarako logela, egongela, sofa, haurrentzako gela, armairu eta gainerakoak gurean topatuko dituzu

Osagaien aukera zabala: alfonbrak, menajea, koadroak, opariak...

Gainera, proiektu pertsonalizatuak eta gremioen jarraiera egiten dugu.

Eli Beobide
dekorazio estudioa

Jose de Artetxe, 5 20730 Azpeitia
Tel. 943 81 03 73 Fax: 943 81 58 01
e-mail: elibehobide@euskalnet.net

www.elibeobide.com



ESTUDIOS ARRILLAGA

Proiektu eta erreformak • Gremioen zuzendaritza • Altzarigintza osoa



Arragueta 12. EIBAR
Tel. 943 20 06 98



Errosario 15. ELGOIBAR
Tel. 943 74 40 19

Aukeratu sofa on bat



Sofa on bat erostea ez da lan erraza. Sofaren neurriak egokiak izan behar dira altzariarentzat gorde dugun lekuan behar bezala kabitzea nahi badugu. Ezertan hasi aurretik dena ondo neurtu behar da, sofa izango baita berau jarriko dugun espazioko elementu nagusia, lehen begiratuan ikusiko dena.

Egongelako gainerako elementu eta altzariekin bat datorren sofa aukeratu behar dugu. Horregatik, guztiari begiratu behar zaio; sofaren itxura, besoak, hankak, e.a.


Tapizak ere bere garrantzia du. Sofa baldin bada egongela berrirako aukeratu dugun lehen altzaria, ez da komeni ehun deigarriegiarekin tapizatzea,

egongelako gainontzeko elementuen aukeraketa baldintzatuko bailuke. Aldiz, gainontzeko elementuen araberako tapiza aukeratzeko badugu, estanpatu gehiegirik gabekoaren aldeko apostua egin. Azkenik, funda kentzeko aukera ematen duten sofak dira gomendagarrienak eta garbitzeko erosoena.

BENICOBA

- Elektrodomestikoak
- Sukalderako altzarietan

AUKERA ZABALA



Juan Gisasola 12-14 EIBAR
Tfnoa: 943 20 39 02 Faxa: 943 70 13 95
milar-benicoba@telefonos.es

AS AMMI STYLO

Arragueta 14 behea • EIBAR
Tel. eta faxa: 943 70 17 87



Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Armairu enpotratuak
Parket mugikorra

AS AMMI STYLO



Amairuak, ordenaren protagonistak

Gaur egun amairuak egiteko erabiltzen diren materialen zerrenda amaigabea da; hasi zura exotikoenetatik eta azken belaunaldiko plastikoetaraino.

Logelan ezarri nahi dugun dekorazio estiloaren oinarriak

baldintzatuko ditu armairuen aukeraketak. Hortaz, logela errustiko bat nahi izanez gero, zur noblez eginiko armairu baten aldeko apostua egin beharko dugu, eta aldiz, estilo modernoagoa gogoko badugu, beirazko ate lerragarriko

armairu bat izango da aukerarik egokiena.

Armairu bat aukeratzeko orduan erabaki-irizpiderik garrantzitsuenetakoa, kaxoi eta apal kopurua da. Barneratutako oinetarako-altzaria izatea eta altueran egokitu daitezkeen apalak dituen edo ez jakitea ere garrantzitsua izan daiteke. Armairuaren atek nola eta norantz irekitzen diren aurrez aztertzea ere ezinbestekoa da, logelako gainerako altzariekin trabarik ez sortzeko.

Tiraderez gain apalak dituzten armairuak erosoagoak dira, sarrigotan erabiltzen ditugun arropak, lurrinak edo objektu pertsonalak eskura edukitzeko aukera ematen baitute.

Azkenik, gantxo bat izatea primerakoa litzateke boltsak esegitzeko.



Aure

DEKORAZIOA

Hasieratik bukaerara
etxeko lan guztiak
egingo dizkizugu!



Santa Ana, 8

Tel./Faxa: 943 74 35 09



BIENA AROZTEGIA

Ermuaranbide, 16
☎ 943 743 116

GARCIA AROZTEGIA

P. Muguruza, 30
☎ 943 743 238



A. MARKEZ IGELTSERITZA

Urasandi, 24
☎ 943 743 418



ARAMAR ELEKTRIZITATEA

Morkaiko, 1
☎ 943 741 280

AZPELETA ELEKTRIZITATEA

San Frantzisko, 51
☎ 943 741 238

URZELAI ELEKTRIZITATEA

Santa Ana, 12-14
☎ 943 741 376



ONGI ITURGINTZA

Olaso poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

PAGOAGA ITURGINTZA

San Antolin, 13
☎ 943 740 279



**GLAS CONTROL
ISOLAMENDUAK**

Olaso 27, 47 pabiloia
☎ 943 743 094



IMAR AROZTEGIA

Erreformak

☎ 943 531 471
☎ 646 905 564
☎ 609 054 978

LODOSO AROZTEGIA

Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 743 490

SORALUZE AROZTEGIA

Santa Ana, 8

☎ 943 743 634

ULAZIA AROZTEGIA

Santa Klara, 10

☎ 943 740 547

ASKETA IGELTSERITZA

Maxpe 3, Deba

☎ 943 19 19 52

E. ARANDIA

Urasandi, 17

☎ 605 705 204



IPINTZA PINTURAK

Foruen Enparantza, 4

☎ 943 740 440
☎ 607 740 440

JOSE PINTURAK

San Bartolome, 28

☎ 943 741 255

P.P. BERISTAIN

Xixilion 2, 3 sotoa

☎ 943 743 652

PAGOERROTA ITURGINTZA

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO

☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

TELLABIDE ITURGINTZA

Azpilgoeta, 19 Mendaro

☎ 943 755 062
☎ 607 755 062

ZALDUA ITURGINTZA

Urasandi, 26

☎ 943 740 530

ZUBIZARRETA INSTALAZIOAK

Ubitarte, 5 behea

☎ 943 740 789
☎ 650 586 144

ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosario, 15 behea - ELGOIBAR

☎ 943 744 055 / 943 744 019
Arragueta, 12 behea - EIBAR
☎ 943 200 698

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 26 behea

☎ 943 741 552
☎ 606 431 119-20

CORDON VILLARCHAO

San Roke, 7

☎ 943 742 874

ETXEKIT

Arrillaga z/g

☎ 943 744 347

Etxe argitsuagoa nola lortu

Argi naturalak handitasuna eta sakontasuna ematen dio etxeari, eta edozein txoko txikik bizitza propioa hartzen du argi naturalari esker. Oraingo honetan, argi naturala hobeto aprobetxatzeko gomendio batzuk emango dizkizugu:

- **Argia hedatzen duen lurra:** Logelan edo egongelan argitasun gehiago lortzeko, baina epeltasuna galdu gabe, kolore argiko egurra erabiltzea komeni da; pagoa, pinua edo iharra.

- **Bilbe irekiko gortinak:** Bilbe irekia duten lihozko gortinak dira

argi naturala indartzeko apusturik onena.

- **Altzarien distribuzioa:** Altzariak leihoak estali gabe kokatu behar dira, argi naturalari trabarik egin gabe. Sofa baxuak erabiltzea komeni da, eta altzari garrantzitsuenak (ohea, mahaia...) leihoetara begira jarri behar dira.

- **Altzari arinak:** Argi natural gutxi daukan gelan altzari arinak eta kolore argikoak erabili.

- **Leihoen garrantzia:** Etxean obrak egiteko asmoa baldin badaukazu, ahal den neurrian leihoak handitzea komeni da, eta kolore zuria erabiltzen bada, barruko aldean argi natural gehiago edukiko dugu.

Sekretuak

Gela edo egongela bat argitsuagoa izan dadin, gehiegi ez kargatzea da sekretua. Kolore



LODOSO LEIHOAK

Zure neurria egindako lana



- PVCa
- ALUMINIO TERMIKOA
- POLIURETANO A
- ALUMINIOA - EGURRA

Sigmako industrialdia

Xixilion, 2 - 2. pabilioia 3 zenbakia

Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

e-posta: fjlodoso@euskalnet.net





iluneko butaka bat jarri daiteke, baina beti ere, kolore argiko kuxinekin dekoratuta, urdin eta arrosa argiak oso ondo hedatzen dute argia.

• **Horma arinak:** Hormak margotzerako orduan koloreak garrantzia du, baina gehiago beharbada intentsitateak. Kolore argia aukeratzea baino garrantzitsuagoa da suabe margotzea. Tapizeria

argiekin konbinatuz argitasun handiagoa lortuko da.

• **Ispiluak:** Ispiluak erabiltzea argitasuna bikoizteko truku bikaina da. Kanpoaldera begira jarritz, kanpokoak islatuko du eta leiho baten funtzioa beteko du.

• **Kolore neutroak:** Crema, hari eta artile koloreko elementuen erabilerak giro argitsuagoa lortzen lagunduko dizu, oso ondo islatzen

baitute argi naturala. Gainera, oso epelak eta dotoreak dira.

• **Oihal mardulak ebitatu:** Oihal beroek argia jaten eta iluntasun giroa areagotzen dute. Ile eta belusa oihal mardulak ebitatu.

• **Altzariak neurritara:** Neurritara egindako altzariak handitasun sentazioa emateaz gain, argi gutxiago jaten dute, eta argitasuna hobeto hedatzen laguntzen dute.



SORALUZE AROZTEGIA

- "Rotura" dun aluminioa
- PERFILTERMIK modeloko poliuretanoa
- HERMET-10 PVCa
- Bainuko manparak
- Ateak

FABRIKA:

Olasope, 66 • ELGOIBAR
Tel./Faxa: 943 74 21 03

ERAKUSKETA:

Santa Ana, 8 • Tel.: 943 74 36 34 • ELGOIBAR
Goiko Kale, 16 • Tel.: 943 81 02 74 • AZPEITIA



Komuna, segurua eta eroso

Zure etxeko komuna berritzeko asmoa daukazula? Gaurkoan gomendio batzuk emango dizkizugu.

Segurtasuna:

- Kristalezko ate eta manparak jartzen badituzu, segurtasunezkoak izan behar dira, golperen bat hartuz gero, ez puskatzeko.

- Komuneko eta bainerako lurra material ez labainkorrekoak izan behar dira.

- Etxean pertsona nagusiak bizi badira bainera, komuna eta bidetaren ondoan heldulekuak jarri.

Ura aurrezteko:

- Zisternan 3 eta 6 litro arteko kapazitatea daukan komuna aukeratu, deskarga bikoitzekoa.

- Mando bakarreko iturriarekin hobeto kontrolatzen da kontsumoa. Dutxan iturri termostatikoa jarritz ura



nahi duzun tenperaturan jarri daiteke eta ez da berotu arte gastatzen.

Berogailua eta isolamendua

- Komunean hotzik ez pasatzeko egokienak ur beroko erradiadorea, berogailu elektrikoa edo toailak jartzeko aparailu berogailua dira.

- Komuneko leiho eta hormak ondo isolatuta egotea komeni da,



bestela beroak ihes egiten du. Hormetan material isolatzaileak jartzea komeni da.

Distribuzioa

- Ahal dela komuna eta bidetari ukitu pribatua ematea komeni da, bainera eta lababotik aldenduz.

- Komuna txikia bada, baineraren ordean dutxa bakarrik jarri daiteke. Espazio asko irabazten da.



PAGOAGA

Iturgintza · Berokuntza · Gasa · Igeltserotza · Arotzeria
PROIEKTUAK: Injinerutza · Arkitektura · Dekorazioa



San Antolin, 13

ELGOIBAR

Telefonoak:

943 74 02 79

943 74 05 12

Faxa:

943 74 35 65

E-posta:

pagoagasa@euskalnet.net





Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.
Gure erakusketa bisita ezazu!



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.



Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.
%50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU



Mustisac-ekin **INDEPENDENTZIA**, bi pertsonak ohe berean egin dezakete lo erosotasun eta independentzia osoz, ohe ezberdinetan egongo balira bezala.

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

Etxebizitza domotikoa. Zer da domotika?



Sistema domotiko edo adimenduna zentral bakarretik etxebizitzako zerbitzu guztiak kontrolatzen dituen da. Instalazio guztien aprobetxamendu maila altuena lortzeko erabiltzen da. Automatizazioaren teknologia eta etxearen kontrola aplikatzea da domotika. Milaka aukera eskaintzen ditu domotikaren merkatuak, aukera guztiak bizitza kalitatea hobetzen laguntzen dute, erosotasuna eta segurtasuna areagotuz. Honekin batera, energia aurrezten laguntzen du domotikak. Sistema domotikoa oso malgua da, eta edozein eraikuntza edo beharretara moldatu daiteke, berdin da eraikuntza horretan garatuko den ekintza, domotikak dena onartzen du.

Funtzionamendua

Sistema domotikoaren erabilpena oso erraza da. Pertsona eta sistemaren arteko komunikazioa menu interaktibo baten bitartez egiten da. Galdera sinple batzuk erantzun besterik ez da egin behar. Sistema domotikoak datu interesgarri guztiak bilduko ditu sistema informatiko baten bidez, eta emandako agindu guztiak beteko ditu. Etxebizitza pantaila nagusitik kontrolatzeaz gain, edozein lekutatik kontrolatu daiteke telefono batekin. Edozein momentutan deituz, sistema domotikoak kodea ezagutuko du eta emandako aginduak beteko ditu. Adibidez: eguzkia atera dela eta pertsianak jaitea nahi badituzu, dei bat egitearekin nahikoa izango da.



LAISTER GERA ZUEKIN

Aintzane Gonzalez
Sebas Unzilla



605083955 - 943742128

Sistema domotikoa etxea obretan dagoen bitartean ezarri behar da. Sistema honek eskatzen dituen kableatuak etxea obretan dagoela egin behar dira.

Sistema domotikoaren abantailak

1. Instalazioan aurreztea: Etxean zentral domotiko bat jarritz, ez da gainontzeko instalaziorik behar: ureztapen instalazioa, sutearena, alarmarena, klimatizazioarena... Hauek guztiak jartzea ebitatuko da, zentral domotikoak hau guztia eta gehiago kontrolatzeko ahalmena du-eta.

2. Eguneroko bizimoduan erosotasuna: Zentral domotikoak etxeko eginkizun mordoa egingo ditu zure orde. Ohera joaten zarenean berak piztuko du segurtasun sistema, beharrezkoak ez diren argi guztiak itzaliko ditu,



pertsianak jaitsiko ditu, toldoak jaso, tenperatura egokituko du... Beharrezkoak diren gauza guztiak automatikoki eta oso erraz egingo dira sistema domotikoari esker.

3. Segurua eta funtzionamendu egokia: Sistema domotikoa segurua da eta oso ondo funtzionatzen du.

Sistema honen mantenua oso erraza da. Sistemak unitate mikroprozesatu bat dauka eta honek gestionatzen du instalakuntza elektriko guztiaren funtzionamendu egokia. Gestio hau bost milisegunduka egiten du, testeo abiadura honek sistema segurua eta abila izatea bermatzen du.



ISOLAMENDUAK

glas control S.L.

Tel.: 943 74 30 94



LEIHOAK ETA EGURREZKO ATEAK ISOLATZEN DITUGU



ALTZAIRU INOXIDABLEZKO BURLETEAK

- Azkarra
- Ekonomikoa
- Obrarik gabe

- Haizea, hotza, hautsa eta zaratak eragozteko.
- Beroak alde egin ez dezan eta berogailua aurrezteko.

EGUZKIARENGANDIK BABESTEN DUTEN KRISTALEZ HORNITUTA



- Etxebizitza
- Bulegoak
- Dendak

- Argi eta bero gehiegi, isladapena.
- Intimitatea, ikuspena ekiditea.
- Ez du kolorerik galtzen.
- Dekorazioa

Olaso 27, 47. pabiloia • ELGOIBAR

www.glascontrol.com • comercial@glascontrol.com



ASKETA
ERREFORMAK, S.L.

Maxpe, 3 behea - 20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 - Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com



Santa Klara, 26
ELGOIBAR
Tel: 943 74 15 52
606 43 11 19
606 43 11 20
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net

Gehienezko kalitatea prezio onenean

10 urteko bermea
gure lan guztietan!



- Gremioen zuzendaritza
- Igeltseritza
- Iturgintza
- Pintura dekoragarria, etab.
- **Goi-mailako dekorazioa**



Valentine

Europako merkatu profesionalen liderra

**Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!**



Movellán

sukaldeak - bainuak



P.M. Urruzuno, 10
Tel. 943 74 37 66
www.movellan.com



Espazio baten banaketaren antolamendua
personala eta aukera anitzekoa da

ARIMA BELTZAREN CD BERRIA

“Mundurako atean” diskoa aurkeztu zuen Arima Beltzak herritarren aurrean

Arima Beltza taldeak “Mundurako atean” estudioan grabatu duten 3. lana herritarren aurrean aurkeztu zuen barixakuan. Kontzertu intimoa izan zen, lagunartekoa, ez baitzuten emanaldiaren publizitate gehiegirik egin nahi izan. Halere, Kultur Etxeko sotoa bete egin zen. Mungia lamiña estudioetan grabatu duten “Mundurako atean” diskoko abesti berriez gain, aurreko diskoko abestiak (“Blues Sustraiak”) eta “Led Zeppelin” edo “ZZ Top” taldeen bertsoak ere jo zituen seikoteak.

Disko berriaz gain, aurpegi berri bat aurkeztu zuen taldeak, Lander Trinidad gitarjoleak taldea laga baitu eta Patxi Zabaletak hartu du haren lekua. Bestalde, aurreko diskoan hasitako bideari jarraituz, eta bluesa albo batera laga ez duten arren, rockerantz jo dutela egiaztatu ahal



izan zen sotoan. Gitarra riff indartsuek osatzen dute CD berria eta lehen hiru abestiek 70. hamarkadako rock usaina dute. Halere, bada kanta lasaiagorik ere. Hurrengo kontzertua urriak 22an emango dute Durangoko txoznetan. CDak, berriz, salgai daude herriko denda eta tabernetan.

“Ikuskizun Zirkonikoa” Zirika Zirkus taldearen eskutik

Zapatuan, urriaren 22an, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoei zuzendutako antzerkia ekarriko du Zirika Zirkus taldeak. “Ikuskizun Zirkonikoa” izeneko antzezlanak ikusi ahal izango da Herriko Antzokian 16:30etatik aurrera. Bertan, trapezistak, malabaristak, pailazoak eta zirkuko beste pertsonaia izango dira. Sarrerak 3 euroren truke eskura daitezke.

Instrumentu Taldeen Lehiaketarako kartel lehiaketa

Inazio Bereziatua Musika Eskolako 2006ko “Elgoibarko Herria” Instrumentu Taldeen V. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketa jarri du abian aurten ere. Orijinalak honako helbidera bidali: (Aita Agirre Plaza 4, 20870 Elgoibar). Entregatzeko azken eguna azaroaren 7a. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Argibide gehiago 943 74 21 45 telefonoan.

Rai Buenoren ipuinei adi-adi

Suge enkantatzaileek sugea moduan, liluratuta, begi zuloak bere lekutik atera beharrean eduki zituen Rai Bueno Ipuin kontalariak. 3 eta 8 urte bitarteko audientzia izan zuen ipuin kontalariak Udal Liburutegian.



Sagardotegietako giroa Nafarroa plazan



Argazkian ikus daitekeen moduan, herritar mordoak hurbildu zen joan zen zapatuan Sagardo Ibiltariak gozatzen. Txankakua Merkataritza Elkarteak sagardotegietako giroa kalera atera nahi izan zuen eta Saizar sagardotegiko sagardoz beteriko kupelak jarri zituen Nafarroa plazan. Eguraldi ederra lagun Txu-txu trenak jendez gainezka ibili zen herriko kaleetan zehar eta kupelek ere ia behea jo zutela aipatu digute.



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



ASEGURUA

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan


Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

EUSKARA

EUSKARA ERREFORTZUAK EGITASMOA 2003/2004 IKASTURTEAN JARRI ZUEN MARTXAN ELGOIBARKO IZARRAK. KANPOKO HAUR ETA GAZTETXOEI EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZA EMATEAZ GAIN, BERTAKO HAURREI ERE EUSKARAZ HITZ EGITEKO ERRAZTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DIETE. NEREA LARRAÑAGA, EGITASMOAREN ARDURADUNAK, ETA EUKENE GIL ETA LARRAITZ LOPEZ LAGUNTZAILEEK EMAN DIZKIGUTE ARGIBIDEAK.



Elgoibarko Izarrako aisialdi taldean, Aitxuamaikan, batez ere, somatutako behar bat izan zen egitasmoa martxan jartzeko pizgarria. Elgoibarko hainbat haurrek euskaraz berba egiteko zailtasunak zituztela ohartu ziren, eta ondorioz, gaztelerara sarriegi jotzen zutela beraien arteko harremanetan. "Izan ere, haur askorentzat euskara gela barruan erabiltzeko hizkuntza da, eta ez lagun arteko hizkuntza". Egitasmo honen nahia, haur hauei euskaraz berba egiteko erraztasuna lortzen laguntzea da, eta euskararekiko jarrera positibo bat sortzea.

“Ez diet euskaraz hitz egiteko esan beharrik”

LARRAITZ

Euskara Errefortzuen barnean bi atal bereizi dituzte 2005/2006 ikasturterako.

Batetik, 5-9 urte bitarteko haurrei zuzendutako eskaintza. Bertako haurrek eta kanpotik etorritako haurrek eskaintza berdina jasoko dute eta batera jardungo dira Errefortzuetan. Eskolak bukatu ostean, ikastetxean bertan, astean ordubeteko bi saio izango dituzte.

Aurten, 5 talde sortu dira, hauetako 3 Herri Eskolan eta 2 Ikastolan. Guztira 38 haur arituko dira. Hauetatik, 7 etorkinak (batzuk iritsi berriak eta beste batzuk urtebete baino gehiago daramatenak).

“Orain arte, ikasle etorkinak talde berezietan sartu izan ditugu, baina hasieran euskaraz tutik ulertu ez arren, bertako haurrekin nahastuz askoz euskara gehiago ikasten dutela ohartu gara. Gainera, lagun berriak egiteko aukera izaten dute”.

Bestea, 10-18 urte bitarteko gaztetxo etorkinei zuzendutakoa da, Elgoibarren 2 urte baino gutxiago daramaten etorkinei. “Euskararen hasierako ikaskuntza prozesuan laguntzeko asmoz, euskal kultura eta ohiturak ezagutu ditzatela da helburua. Momentuz, ez da talderik atera, baina kurtsoan zehar talderen bat sortzeko aukera dago”.

Motibazioa lortzeko zailtasunak

Zailtasunak, batez ere, gaztetxoekin lan egiteko orduan topatzen dituzte. “Etorkin gaztetxoekin izandako esperientzian konturatu gara oso zaila dela motibatzea eta guk antolatutako ekintzetan parte hartzea”.

“Horrez gain, kontutan izan behar dugu talde bakoitzean euskara maila ezberdinetako jendea biltzen zela (batzuk denbora gehiago zeramaten Elgoibarren), eta honek zailtasun handiak sortzen zituen erakargarria izango zen programazio bat prestatzeko orduan. Horregatik, erabaki genuen Elgoibarren bi urte baino gutxiago daramaten etorkinei zuzentzea 10-18 urte bitartekoentzako egitasmoa”.

Laguntzaileen zeregina

Eukene Gil (20 urte) eta Larraitz Lopez (19 urte) laguntzaileak dira. Hezkuntza Bereziko ikaslea da lehena eta psikologiako ikaslea bigarrena. Eukene egitasmoa sortu zenetik ari

BARREN

ERREFFORTZUAK



da laguntzaile lanetan eta Larraitz ikasturte honetan hasi da. Laguntzaileek euskaraz hitz egiterakoan dituzten zailtasunekin laguntzen diete haurrei: "hitz egitera animatzeko ekintzak eginez, jolasen bidez hiztegia landuz, esaldiak osatzen lagunduz, esaldi zuzenak errepikatuz... beti ere, jolasean edo elkarriketan. Euskaraz ondo pasatuz, euskara erabiltzeko gune bat eskaintzen diegu. Eskulanak, antzerkiak, mahai jolasak, mugimenduzko jolasak, e.a. egiten ditugu klaseetan". Honez gain, saioen prestakuntza, ebaluazioa eta haurren jarraipena egiten dute

Egitasmoaren eragina

"Haur hauek egiten dituzten aurrerapenetan egitasmoak zenbaterainoko eragina duen neurtzea oso zaila da, baina ikusi dugu askok aurrerapausu handiak egin dituztela, eta askotan, euskararekiko jarrera aldatuak ere izan direla. Hortaz, eragina badu, eta oso gustura gaude.

Gainera, haurrak oso kontent etortzen dira saioetara, eta honek euskararekiko jarrera positiboa sortzen du, eta euskara gehiago erabiltzen dute. Asko izan dira, hasieran gaztelararako joera handia agertzen zutenak, eta orain, dena euskaraz egiten dutenak" dio Eukenek. Larraitz klaseak ematen hasiberria izan arren gustura dago ikusitakoarekin, "Etorrinekin lan egiteak erakari ninduen, eta euskara irakatsiz beraiei laguntzeko aukera izateak. Beste herrietan

ez dagoela horrelako ekimenik uste dut eta guztiz interesgarria iruditzen zait. Haurrak beraien artean gaztelaraz arituko zirela klaseetan uste nuen baina ez diet euskaraz berba egiteko esan beharrik, konturatu gabe egiten dute euskaraz. Klaseera joan beharrean jolasera joatea modukoa da beraietzat eta gu geu ere ez gaituzte irakasle moduan ikusten, ez baitugu irakasle klasikoaren papera betetzen. Zerbait gaizki esaten badute ez ditugu zuzenean zuzentzen, zeharka baizik". Eukeneren iritziz, haur batzuk konfidantza hartzen doazen neurrian, bai taldearekin eta baita hizkuntzarekin ere, hizkuntzarekiko jarrera aldatu egiten dela konturatu gara, eta euskaraz hobeto eta lasaiago egiten dute".

**"Ondo pasatuz
eta jolastuz egiten
dute euskaraz"**

EUKENE

Gelatik kanpora ateratzen direnean, berriz, guztioi dagokigu haur hauek euskeraz egiten jarraitzeko aukera izatea, baina hori ur sakonagoetan sartzea litzateke.



ARGIÑE GABILONDO PILATES METODOAREN IRAKASLEA

«Pilates metodoarekin adimenaren eta gorputzaren arteko armonia lortzen da»



Joseph Pilates alemaniarrek sortu zuen Pilates metodoa duela 80 urte, baina Hollywood-eko zine izarrek jarri dute modan mundu guztian. Elgoibarren 75 lagunek eman dute izena Patronatuak antolatutako ikastaroan. Arriñe Gabilondo irakasleak argitu digu zer den Pilates.

👉 Zer da Pilates metodoa?

Ez da yoga, ezta gimnasioko ohiko ariketak ere, baina bietatik du zerbait. Mendebaldeko ariketa fisikoaren filosofia; dinamikoagoa eta giharren garapenean oinarrituagoa, eta ekialdekoa; arnasketa eta erlaxazio aktiboaren bitartez gorputzaren kontrola lantzen duena.

👉 Nork sortu zuen?

Joseph Pilates (1880-1967) alemaniarrek sortu zuen duela 80 urte. Haurtzaroan gaixorik ibili eta giharren ahultasunarekin obsesionatuta zegoen. Hori dela-eta, organismoari kalterik txikiena eginez errendimendu ahalik eta handiena ateratzeko metodoaren bila buru-belarri lan egin eta Pilates metodoa asmatu zuen. Atleta, igerilari eta boxeolari bikaina izatera iritsi zen.

👉 Zertan egiten du mesede?

Gorputzaren posturak hobetzen ditu; ohitura txarrak baztertuz eta gorputz lerrokadura zuzenduz. Artikulazioen indarra, oreka, malgutasuna eta odol zirkulazioa hobetzen ditu. Honez gain, arnasketaren kontrolaren bitartez kontzentrazio gaitasuna handitzen du. Estres arazoak, tentsioak eta nekeak ere gutxitzen ditu. Oro har, gorputzaren eta adimenaren arteko armonia lortzen da.

👉 Edozeinek egiteko moduko ariketak al dira?

Mugimenduak gihar bakoitzaren luzamendu ahalmen guztia lortzeko

bideratuta daude baina ez ditugu edonola egiten, energia barrukaldetik kanpora bideratuz baizik, beti kontrolpean. Ariketak gorputza orekatu eta lerrokatzen duten postura sekuentzietan oinarritzen dira. Hortaz, profesional baten jarraipenaz, edonork egiteko modukoak dira. Ikasleek oso erlaxatuta ateratzen direla aitortu didate.

👉 Famatu eta zine izarrek jarri dute modan.

Bai. Ikasleei zerk erakarrira etorri ziren galde egitean, askok "Elle", "Vogue", eta antzerako aldizkarietan izan zutela Pilatesen berri erantzun zidaten. Famatuena Pilates metodoa merkatuan sartzeko marketing operazio bat dela azaltzen diet. Pilates metodo eraginkorra da, ez miragarria, eta denbora behar du. Gainera, ez da ariketa osoa, ez baitu sistema kardiobaskularra lantzen. Aitzitik, beste ariketa fisiko batzuen (spinning, aerobik, mendia...) osagarri ezinhobea dela uste dut. Bizkarrezurreko arazoak dituztenentzat ere aproposa da, dauden egoeran ezin baitute korrika edo jauzirik egin.

👉 Zer gihar lantzen dira?

Batipat zeharkako abdominalak lantzen dira, indartzeko zailenak. Gihar hauen zeregina barruko organuak babestea eta gerialdea eta bizkarrezurra zuzen mantentzea da. Bizkarrezuraren artikulazioen migikortasuna, zangoak eta besoak ere lantzen dira.



«Posturak hobetzen ditu; ohitura txarrak baztertuz eta lerrokadura zuzenduz»

PEDRUSKO

Mailaz igotzea nahi du 10. urteurrenean



Tente, ezkerretik eskumara: Pedro Santiago (entrenatzailea), Iban Quintana, Ibai Idoeta, Ruben Jimenez, Ignacio Wis, Unai Etxeberria, Jorge Peña, Eneko Etxeberria, Imanol Carcedo, Antonio Gomez eta Iñigo Otero. **Makurtuta, ezkerretik hasita:** Javi Gonzalez, Arkaitz Leiaristi, Gari Muñoz, Fran Huidobro, Gorka Dominguez, Eugenio Caro, Gorka Merino, Iker Polo, Anton Arizmendi eta Alberto Diez.

azko denboraldia taula erdian amaitu zuen Pedrusko Futbol Taldeak erregional 1. mailan. Aurten sortu zeneko 10. urteurrena betetzen da, ordea, eta Pedro Santiago entrenatzaileak helburutzat igoera lortzea jarri dutela aipatu digu. Momentuz jokaturako 5 partidetatik 4 irabazi eta bakarra galdu dute. "Jokalari gazte eta esperientziadunen arteko oreka lortu dugu

eta jokutzen dakien taldea osatu. Kalitatezko taldea izan arren, motibazioa erraz galtzen dutela uste dut. Ia 10. urteurrena dela-eta behar beste motibatzen diren". Laupabost jokalarik laga zuten taldea iaz eta beste horrenbeste etorri dira: Unai Etxeberria, Jorge Peña, Iñigo Otero, Javi Gonzalez eta Jon Muñoz. Pedro Santiago entrenatzailearentzat ere lehen urtea izango da Pedruskon.

Mendi irteerak proposatzeko lehiaketa

Morkaiko Mendizale Elkarteak hasi da datorren urteko mendi irteeren egutegia prestatzen. Azken urteetako ohiturari jarraituz, bazkide eta herritarrek irteerak proposatzeko aukera izango dute, eta aukeratutako proposamenen egileek irteerara dohainik joateko aukera izango dute. Proposamenak morkaiko@morkaiko.net helbidera bidali daitezke. Bestalde, Santu Guztien jaizubian Piriniotara, Saint Lary ingurura, irteera antolatuta du mendi taldeak. Oraindik izena emateko aukera dago.

Behobia-Donostiara joateko autobusa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Behobia-Donostia proban parte hartzea nahi duten korrikalari guztientzat autobusa jarri du. Azaroaren 13an, domekan, korituko da 11.000 lagun pasa biltzen dituen 20 kilometroko lasterketa. Izenemateak Olaizaga kiroldegian egin beharko dira azaroaren 10eko eguerdiko 12:00ak baino lehen. Prezioa 10 eurokoa izango da Patronatuko bazkideentzat eta 12 eurokoa gainontzekoentzat.

Igeriketa ikastaroak Olaizaga kiroldegian

Haurrei eta helduei zuzendutako igeriketa ikastaroak antolatuta ditu Udal Kirol Patronatuak. Azaroaren 7an hasiko dira

ikastaroak Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Urriaren 31tik azaroaren 4ra bitartean eman beharko da izena kiroldegian bertan.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Aurrera Vitoria 1 - Haundi 0 (3. maila)
Zumaiako 1 - Elgoibar 2 (Erreg.)
Elgoibar 1 - Aloñamendi 0 (Jub.)
Elgoibar 2 - Aretxabaleta 3 (Kad.)
Aloñamendi 3 - Elgoibar 1 (Inf. A.)
Elgoibar 2 - Vasconia 1 (Inf. B.)
Lagun Onak 3 - Elgoibar 1 (Neskak F-8)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 2 - Ituriondo 4 (Nazional B)
Lanbroa 4 - Alko Ondarroa 3 (1. maila)
Toletxe 6 - Idiazabal 4 (Jub.)

ESKUBALOA

Escalapios 30 - Tecnifuelle 29 (Sen. mut.)
ANIT-Softlan 18 - Ormaiztegi 28 (Sen. mut.)
Cometel 19 - La Salle 17 (Jub. nesk.)
Jauja 12 - Pagoaga Elg. 3 (Kad. nesk.)
Pneumax 16 - Usurbil 26 (Jub. mut.)
Tecnomeca 22 - Groseko 18 (Kad. mut.)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak (Ulazia/Iriondo) 17 - Ilunpe 22 (2. Nag.)
Hemani 22 - Lagunak (Konde/Txurruka) 30 (Jb.nsk.pal)
Olaide 22 - Lagunak (Portu/Atxotegi) 17 (2. jub.)
Lagunak (Lizarralde/Arizab.) 6 - Ilunpe 22 (kad.)
Lagunak (Arib./Salegi) 8 - Añorga 22 (2. kad.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan

Zapatua, 22

12:30 Elgoibar - Zarautz (Inf.)

16:30 Haundi - Laudio (3. maila)

Domekia, 23

11:00 Elgoibar - Eibartarrak (Neskak F-8)

16:30 Elgoibar - Vasconia (1. Erreg.)

ESKU PILOTA

Ikastolan

Domekia, 23

12:00 Lagunak - Hemani (Jub. nesk. palaz)

12:45 Lagunak - Añorga (1. maila Jub.)

ESKUBALOA

Kiroldegian

Zapatua, 22

16:30 Tecnifuelle - Basauri (Senior mut.)

18:15 Pagoaga - Usurbil (Kad. nesk.)

Domekia, 23

11:00 Umobitza - Egia (Kad. mut.)

12:30 Lojantzi - Aloña Mendi (Sen. nesk.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFEAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrarena 05/06

Jokalaria Puntuak

1. David Morais 27

2. Arruti 19

3. Iribar 16

4. Guinea 14

5. Alex Del Rio 12

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdikio 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † Txistularia eta dantzaria den pertsona ospakizunetarako prest. ☎ **615 799 689 (Naroa)**
- † Lorategi eta haztegi langileak bere burua eskaintzen du terenoak garbitu, podaketa lanak edo baserrian lan egiteko. ☎ **662 365 469 (Ibai)**
- † Emakume arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Esperientzia. ☎ **610 755 399**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **646 238 195**
- † Mutil gaztea eskaintzen da lan egiteko. Igeltsero laguntzaile, gidari, kamarero... ☎ **646 238 195**
- † Neska goizetan lan egiteko prest. Ostalaritzan esperientzia. Garbiketa lanetarako eta tailerretarako prest. ☎ **647 144 950**
- † Neska gaztea gaez umeak zaintzeko prest. ☎ **628 299 986**
- † Neska nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **686 578 228**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **676 62 38 43**
- † Emakumea haurrak zaintzeko prest. Urtebeteko esperientzia. ☎ **669 22 35 27**
- † Emakumea kamarera, garbiketa edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ **600 28 27 93**

- † Emakumea sukaldean, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **690 701 118**
- † Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01 (Araceli)**
- † Neska harategian lan egiteko prest. Papelak ditut. ☎ **615 00 83 46**

ESKAINITZA

- † Kamareroa behar da. Esperientziarekin. ☎ **943 74 34 11**
- † Psikologoa behar da. ☎ **676 617 055**
- † Jatetxerako kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ **943 12 12 62**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Sigman. ☎ **943 74 42 34**
- † Etxea salgai Iñiguez de Karkizano (Artexa) kalean. Berritua eta dena kanpora begira. Altxariekin. Ganbara. ☎ **627 94 12 61**
- † Pisua salgai Bernardo Ezenarro kalean. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela, trasteroa. ☎ **677 43 71 12**
- † Pisua salgai Urasandin. 4 logela, 2 komun, dena kanpoaldera. Berritua, gas naturala, leiho hermetikoak, trasteroa, bista ederrak. ☎ **943 74 88 31**
- † Etxea salgai Sorraluzen. ☎ **943 85 29 99**
- † Pisua salgai. Oso eguzkitsua eta ikastetxe baten ondoan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, ganbara. ☎ **666 76 22 95**

ALOKAIRUA

- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **646 23 81 95**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04 (Rosa)**
- † Pisua alokatzen da Torreveijan. Igerilekuarekin, hondartzatik 600 metrora. ☎ **628 584 535**

[GARAJEAK]

- † Garajea salgai Santa Ana kalean. ☎ **615 70 98 08**
- † Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean. ☎ **943 74 33 52**
- † Arregitorre 12an garaje maraduna salgai. ☎ **943 74 09 57 (gavez)**
- † Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ **620 135 958**
- † Garaje itxia salgai Urasandin. Anaiak eraikuntzan. ☎ **620 431 480**
- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**
- † Leku Ederren, 4. solairuan garaje maraduna salgai. ☎ **660 042 159**
- † Mendaron, Udaletxe azpian garaje itxia alokatzen da. ☎ **660 042 159**
- † Garaje itxia salgai kiroldegi aurrean. Garbilekua, 5,30x2,70. ☎ **609 41 73 52**

[LOKALAK]

- † Lokala salgai Mendaron. 150 m² Negozia martxan, diru sarrera demostragarriak. ☎ **943 75 50 20/675 708 133**
- † Lokal komertziala salgai Urasandin. 27 m² ☎ **627 00 79 50**
- † Neska koadrila batek lokal txikia alokatuko luke. Merke. ☎ **695 71 77 25**
- † Lokal txikia alokatuko nieke neskei. ☎ **667 838 858**
- † Kafetegia alokatzen da. ☎ **686 608 224**

[PARTIKULARRAK]

- † Ingeles klaseak ematen dira etxeetan. Maila guztiak. ☎ **606 73 38 50 (Carlos)**

[SALEROSKETAK]

- † Play Station 2 salgai. Jokuekin. ☎ **685 75 93 15**
- † Peugeot motorra salgai. 49cc. 500 euro. ☎ **943 74 25 75 (Xabi)**
- † Ford Focus autoa salgai. 30.000Km. Egoera onean. ☎ **645 72 06 01**
- † Etxe berriko sukaldea salgai. Oso merke. Armairuak, fregadera, labea, bitrozeramika, kanpaia. Eramateko prest, enbalatuta. ☎ **943 74 84 69**
- † Autokarabana salgai. 4-5 pertsonentzako. Ford Transit 2.5D Riviera. Ongi zaindua. Nagusia mekanikoa da eta garajean lo egiten du. 13.000 euro. ☎ **653 71 49 70**
- † Eskopeta repetidora eta paralela kanoia arariatua salgai. ☎ **943 74 00 79**
- † Nintendo DS bideojokua salgai. 2 jokuekin, gutxi erabilia, merke. ☎ **661 42 60 77**
- † Izozkailu horizontala salgai. Berriberria. Kolorezko telebista ere salgai. Prezio onak. ☎ **645 70 77 00**

[BESTERIK]

- † Urrezko pulsera bat aurkitu dut Leku Eder parkean. ☎ **943 74 28 04**
- † Uztailean urrezko pulsera bat aurkitu nuen Arregitorre inguruan. ☎ **943 74 33 03**
- † Ingeles hiz egitea gustuko duen pertsona helduren batekin kontaktuan jartzea nahiko nuke. 37 urte ditut, nire ingeles maila ertaina. ☎ **617 17 53 18**
- † Jaka eta barruan neraman telefono mobila galdu nituen urriaren 7an Toletzeko parke inguruan. Mobileko datuak behar beharrezkoak ditut. ☎ **943 53 14 70**
- † Caritasek umeentzako kuna eskatzen du. ☎ **943 74 15 09**

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

AISIALDIRAKO 2 ZUZENDARI BEHAR DIRA

Eskatzen da:

- Aisialdirako zuzendari titulua
- Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna
- Harremanetarako dohainak
- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)

Baloratuko da:

- Esperientzia sektorean
- Sektoreari lotutako ikasketak
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea
- Elgoibartarra edo

Eskaintzen da:

- 6 hilabetetarako lan-kontratua, luza-tzeko aukerarekin.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: azaroak 4, ostirala.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Aiora) • E-posta: aiora@elgoibarkoizarra.com

[ZORIONAK]



† Zorionak **Maria**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta ahizpa Sararen partez.



† Zorionak **Borja** atzo urteak egin zenituelako. Emazte eta semearen partez.



† Zorionak **Markel** hilaren 15ean 4 urte egin zenituelako. Ibai, Julene eta Nerearen partez.




† Bikain igaro genuen zure egunean. Datorren urtean berriro ospatuko dugu! Ikastolako laguntxoaren partez.



† Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Zorionak ikastolako laguntxoaren partez.



† Zorionak **Ainhize** gaur 5 urteko bete dituzulako. Aitxixa, amama eta etxekoekin partez.



† Zorionak **Nora** urriaren 18an 7 urte bete zenituelako. Gurasoen eta familiako guztien partez.



† Zorionak **Tangaman!** azkenean heldu da hainbeste espero gendun eguna. Oso ondo pasa laoskua koadrilakoekin partez.



† Zorionak **Amaia** atzo 8 urte egin zenituelako. Aitxixen eta bereziki Eñauten partez.



† Zori zorionak zure urtebetetze egunean. Ondo pasa maite dituzunekin. Lagunen partez.



† Zorionak **Paul** urriaren 19an 4 urte egingo dituzulako. Jonen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Garazi** bihar 9 urte egingo dituzulako. Familiakoekin eta bereziki, ahizpa Maialenen partez.



† Zorionak **Eider Ansola** zure lehenengo urtebetetzean. Familiako guztien partez.



† **Paula** eutsi ondo kuleroak!



† Zorionak **Lucia** atzo zure lehenengo urtea bete zenuelako. Maitasun askorekin zure gurasoak.



† Zorionak **Kristina** bihar 10 urte egingo dituzulako. Familiakoekin partez oso ondo pasa eguna.




† Zorionak **Beñat** zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat guztien partez.



† Zorionak **Elena** urriaren 17an 9 urte egin zenituelako. Familiakoekin partez.



† Zorionak **Ainara** urriaren 17an 9 urte egin zenituelako. Etxekoekin partez.



† Zorionak **Ainara** hilaren 24an urte bat egin duzulako. Aita eta familiako guztien partez.



† 30 urte pasa dituzue elkarrekin dagoeneko! Orain arte bezain guapo eta umoretsu jarrai dezazuela! Zorionak ama zure egunean eta ondo pasa. Familiakoekin partez.

† Zorionak **M^a Reyes** bihar urteak beteko dituzulako. Muxu handi bat Ion, Eider eta familiako guztien partez.



[OKINDEGIA]



23 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

- 21 Ibañez
- 22 Bidasolo
- 23 Bidasolo
- 24 Etxeberria (Santa Ana)
- 25 Fernandez
- 26 Yudego
- 27 Zabaleta
- 28 Etxeberria (Errosario)

GUARDIA 24 ORDUZ

Ibañez
Bidasolo
Bidasolo
Etxeberria (Santa Ana)
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria (Errosario)

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBÁÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
Larrialdiak 943 46 11 11
Planning-a 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
Odol Emaileak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
Hirigintza 943 74 43 84
Epaitegia 943 74 16 30
Hazienara 943 74 44 14
Mendaroko Udala 943 03 32 82
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
Udaletxea 943 74 10 50
Udaltzaingoa 943 74 13 94
Debemen 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 74 08 98
Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Kiroldegia 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Liburutegia 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta 943 74 43 15
Parrokia 943 74 08 42
Postetxea 943 74 15 47
Gazte Informazioa 943 74 14 61
KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Institutura
Arreiture 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA

Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10

Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA

Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00

Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[21 BARIXAKUA]

22:15 DEBAJAZZ

Debabarreneko Jazz Jaaldia
Musikaria: Santi Ibarretxe (Primita)
Herriko Antzokian

[22 ZAPATUA]

16:30 "IKUSKIZUN ZIRKOMIKOA"
ANTZEZLANA

Taldea: Zirika Zirkus Antzerki Taldea
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Atxutxiamaiika
Aisialdi Taldea





ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«La Isla»

22, zapatua: 19:30-22:15

23, domekia: 19:30-22:15

24, astelehena: 22:15

«Los 4 fantasticos»

23, domekia: 16:30

«La Huella»

28, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Princesas»

21, barixakua: 19:30-22:15

22, zapatua: 17:00-19:30-22:15

23, domekia: 17:00-19:30-22:15

24, astelehena: 19:30-22:15

25, martitzena: 19:30-22:15

26, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Fragiles»

21, barixakua: 19:30-22:15

22, zapatua: 17:00-19:30-22:15

23, domekia: 17:00-19:30-22:15

24, astelehena: 19:30-22:15

25, martitzena: 19:30-22:15

26, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«La Isla»



Zuzendaria: Michael Bay.

Antzezleak: Scarlett Johansson, Ewan McGregor, Steve Buscemi..

XXI. mende erdialdea. Lincoln Eco-Seis (Ewan McGregor) eta Jordan Delta-Dos (Scarlett Johansson) itxitako auzune bateko bizilagunak dira. Beraien bizitzak goitik behera kontrolpean daude, itxuraz, euren hobe beharrez. Guztiak partekatzen duten itxaropena eta irtenbide bakarra uhartera joateko aukeratuak izatean datza. Dirudienez, hala kontatu diete, hondamendi ekologiko baten eraginez kutsatua izan ez den leku bakarra da uhartera. Katastrofeak lurreko gizaki guztiak hil zituen. .

Atzera begira



1932. urteko erretratu zahar hau **Elgoibarko EAJk** laga digu. Urtarrilaren 7an ateratako argazkia da, Elgoibarko Parrokia kanpoan, bataioaren ostean. Garai hartan probintzian eta herri bakoitzean urteko lehenengo haur jaioberriaren familiari Uri Buru Batzarrak haurrentzako beharrezkoak ziren gauzez osatutako saski bat oparitzen zion. Urte honetan Iñaki Gorostiza izan zen Elgoibarren jaio zen lehenengo umea. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak.

Ezkerretik eskumara: **Candida Arregi (†)** (bataiatutako haurraren ama besoetakoa), **Pepita Garate (†)** (bataiatutako haurraren izeba. Familia honetan ohitura zenez, berak eramaten zituen haurrak bataiatzera), **Iñaki Gorostiza** (bataiatutako haurra) eta **Maximo Konde (†)** (orduko Uri Buru Batzarreko presidentea).

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Jaika

jatetxea



- Karta berria
- Menu bereziak
- 25 - 30 lagunentzako jangela
- 6 - 8 lagunentzako jangela pribatua

Pedro Muguruza, 27 behea • Tel.: 943 74 10 29

HORMAN S.L.



- ERAIKUNTZAK
- BERRIKUNTZAK
- PROIEKTUAK
- ETXEBIZITZAK
- FATXADAK
- TEILATUAK
- ZUZENDARITZA TEKNIKOA
- DIRULAGUNTZEN GESTIOA



Otaola Etorbidea, 3 10. lokala 20600 EIBAR
Tel.:943 82 04 07 Faxa: 943 82 07 24
depart.comercial@horman.info